


# Begirada luzea laburrean

Juan Kruz Igerabide, 'Labur Txintan', Pamiela

**G**aldetu beharko genioke Juan Kruz Igerabideri bere literatura egiterakoan, eta batez ere, aforismoak idaztera bultzatu dutenen artean, zeintzuk izan ote diren idazle esanguratsuenak eta eragin-dura gehien izan dutenak. Aforismoarena, duda barik, genero mugatugabea eta ezin zehaztu daitekeena da. Gogoan daukat Dino Ruozzik esandakoa: "Zer denaren zenbait adibide emango nizkizuke; baina ez eskatu definizio zehatzik". Genero epigramatikoa, laburtasunaren nagusitasunean oinarriturik dagoena, beti kondentsaturik datorriguna. Igerabidek, hitz gutxiarekin, gauza mamitsuak dakartzkigu, esaldi zorrotzak, buru argikoak. Ramon Ederrek, agian gaztelera idazten dutenen artean aforistik eragunena, zioen aforismoaren funtsa iluntasunean tximista bat izatea dela, sekulako argitasunekoa, baina argitasun hori une bakar batean agertu beharrekoa da. Urrats bakoitzeko, altxor bat; hori izan zitekeen liburu honen lema. Beste askok ehunka orrialde behar dutenean zeezer esateko, Igerabidek bi lerroetan adierazten du. Zailena ez da ahalmen hori izatea, praktikara eramatea baino. Pamielak argitaratu berri duen *Labur txintan* honen aurretik, Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) beste hiru aforismo liburu kaleratu zituen, *Sarean Leho* (1994ean), *Herrenaren arastoan* (1998an) *Egia hezur* (2004). Euskeraz behintzat ez dira oso ugariak izan genero honi ekin dioten idazleak, aipa nezake Karlos Linazasoro, eta beste gutxi batzuk, Ana Urkiza, esaterako. Aurretik argitaratu dituen liburuetan aforismoekin batera poemak zekartzan Igerabidek, baina ez honetan. Izan ere, poesiatik aforismora doan zubia ez da hain bide zaila, asko-



Juan Kruz Igerabide

tan nahasten dira. Tituluak berak, *Labur txintan*, poesia-rekiko, kantuarekiko, harreman hori seinatzen du. Lezio labor hauetan laino aztarnarik ez dago: baina argitasunarekin ez da nahiko. Irakurlearen jarrera pentsakorra eta gogotsua behar dute aforismo hauek, osatzeko, biribiltzeko, esaldi bakoitzaren atzean dagoena bere zentzu guztian sumatzen. Liburuaz zabaldu eta edozein orrialdetan aurki dezake irakurleak distiraren bat. Edozein lekutik helduta, bat-batean esaldi asmotsuren bat izango dugu aurrean, harridurarako prestatu.



Aurreko liburuarik gaika banaturik agertzen ziztaizkigun, hitzazurre gisa poema bat zekartelarik. Edozein gauza, edozein arlo edo motibo bihurtzen du aforismo Igerabidek. Hau hama-bi atari edo koadernotan banaturik agertzen zaigu, hain zuten ere, zerranda honetan daudenak: "Giza-legearen koaderno ausazkoa", "Educatio non petitara", "Post mortem kaiera", "Norabiden psikokaiera", "Arte-koaderno minimoa", "Poetika minimoa", "Zizipazaren koadernoa", "Gezurra apainduz", "Zer-nolakoaren koadernoa", "Jain-

kotiar komediaren koadernoa", "Umorez gerotik gerora" eta "Landareen patxada". Sintetisarako joera ona dauka Igerabidek, eta egia esanda, memorian geratzeko aukera ematen die esaldi askori. Beste liburu batean agertzen zen bat datorik orain burura: "Zuhaitzik tentenak ere, sustraiak oker". Beren laburrean, esentzia besterik ez dira, funtsa, gida. Eta ezin zorrotzagoak ("Aforismoa beti ertzaren gainean jautzen da"). Irakur daitezke azkar, segidan, baina banaka irakurtzea gomendatzen dut, geldo, hori baita aforismo bakoitzaren mamia hobeto ateratzeko modua. Igerabide hitzetatik harantzago jotan da askotan, hitzen logikaren gainetik beharbada, esanahi berriak eskuratzeta eta harraipatzen. Egunerokotasunaren



**Liburuaz gaztelera aterazuen lehenik 'Breviario perplejo' izenburuarekin**

irioniak ere agerian uzten ditu maiz oso umore beltzak ("Patuak ez die kasurik egiten kritikei"). Edo: "Eten puntuak dituen testamendua oso arrisksua da"). Esaldi arinenek ere bere ibilbidean zeezer eskaintzen digute, gure barruan halako zama uzten dute, behin eta berriz haietara itzul gaitetzen egonezina eta ziurgabetasunak lasaitzeko (Ezinegona, gehienetan, egonean etortzen dela esaten du Igerabidek aforismo batean).

Liburuaz gaztelera aterazuen lehenik, *Breviario perplejo* izenburuarekin. Igerabideren hitzetan, liburuari buruz galdetu nionean erantzun zidan hainbatetan idatzi eta berridatzirik, itzulpena dela tartean, aforismo hauek bi liburu desberdinetan amaitu dutela; ez dira gauza bera, berberak izanda. Onerako, *Labur txintan* hau ez da inoiz indargabetzen, une, atal guztietan oreka eta kalitatea, intelgentzia puntua, mantenduz. Seguru hori nahikoa dela irakurle gosieta erabat asetzeko eta izugarriko laguntza burmuinak marxtan jar ditzagun. Liburu hau irakurrita, aforismoa zer den galderari erantzuteko bidean hobeto nabilela uste dut.

Aitor Francos